

**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUN, HERRI
PARTAIDETZA ETA GOBERNU ONEKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUAREN TXOSTEN JURIDIKOA****1.- SARRERA**

Txosten hau Sail honetako Herritarrak Hartzeko eta Administrazioaren Berrikuntza eta Hobekuntzarako Zuzendaritzak Euskal Sektorre Publikoaren Gardentasun, Herri Partaidetza eta Gobernu Oneko Legearen aurreproiektua zuzenbidera egokitzeko eskaerari erantzunez igortzen da.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan honako hau ezartzen da: «Betiere, prozeduraren instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak txosten juridiko bat egin beharko du alderdi hauek aztertzeko; egitekoa den arauaren funts objektiboa zein den, haren edukia Legearen eta Zuzenbidearen arabera den eta araugintza-teknikaren gidalerroak bete diren, baldin eta halakorik balego».

Alde horretatik, Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak eskumena du txosten hau egiteko, apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 6.1.e) artikuluan xedatzen duenaren arabera. Hain zuzen ere, artikulua horrekin bat, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio, "Sailari dagozkion gaietan, irizpen teknikoak prestatzea eta, oro har, laguntza juridikoa ematea, Saileko organoek hala proposatzen dutenean, eta, halaber, eskatzen zaion laguntza ematea xedapen orokorrak prestatzeko eta administrazio-egintzak emateko prozeduretan".

8/2003 Legeari eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari¹ jarraituz, dokumentu hauek osatzen dute espedientea:

¹ 19. artikulua.- Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzea.

1.- Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organok ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonen kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintza proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".

2.- Eusko Jaurlaritzak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuta, arauak edo gidalerroak onetsi behar ditu, non adieraziko diren, batetik, zein izan behar diren aurreko paragrafoetan aipatzen den generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko erregelak, eta bestetik, zein administrazio-arau edo -egintza dauden aurretiazko ebaluazio hori eta ondoko artikuluetan jasotzen diren gainerako izapideak egin behar izatetik salbuetsita".

40/2012 EBAZPENA, abuztuaren 21ekoa Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzeko

1. Generoaren araberako eraginari buruzko txostena
2. Justifikazio-memoria
3. Memoria ekonomikoa
4. Legearen aurreproiektua prestatzeko espedientea hasteko agindua.
5. Legearen aurreproiektuaren zirriborroa.
6. Legearen aurreproiektuaren hasierako zirriborroa onartzeko eta aurreproiektua prestatzeko prozedurak aurrera jarraitzea ebazteko agindua.

2.- AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritzaren antolaketa Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 legean arautzen da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio eta sektore publikoarena azaroaren 11ko Legegintzako 1/1997 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzekoa.

Arau horiek indarrean sartu zirenetik gure autonomia erkidegoan legearekin, antolaketarekin, teknologiaren eta gizartearekin lotutako hainbat aldaketa gertatu dira. Horrenbestez, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio eta sektore publikoaren antolamendu-egitura eta haietako funtzionamendu-arauak berrikusi eta eguneratzea. Horregatik eratu zen Euskadiko Herri Administrazioaren Legearen proiektua, berriki Legebiltzarrean izapidetu zena eta Gobernuak baztertu egin zuena, une hartan autonomia erkidegoko legegintzako ganberan zegoen testuinguru politiko ezkorra aintzatetsiz: «2015eko ekainaren 18an, EA-NV, EH Bildu eta SV-ES taldeek sinatutako zuzenketa transakzionalaren ondotik, Eusko Legebiltzarrak UPyD talde Mistoko legebiltzarkide den Gorka Maneiro Labayen jaunak aurkeztutako mozioa, Euskadiko Herri Administrazioaren Lege berri bat planteatzeko eman beharreko urratsei buruzkoa, onartzea adostu zuen.

eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko» Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitara dadila xedatzen da.

«Lehen Gidalerroa: Generoaren araberako eraginari buruzko txostena.

2.– Xedea.

1) Xedapen orokorretarako proiektuek, hau da, lege- edo erregelamendu-maila duten arau juridikoen proiektuek, generoaren araberako eraginari buruzko txostenarekin batera joan behar dute, honako hauek izan ezik:

b) Funtsean antolaketa-izaera dutenak».

Txostenean zera irakur daiteke:

«Legebiltzarrak berak legearen aurreproiektu honen izapidea premiazkatat jo duenez, eta testu berria Euskadiko Herri Administrazioaren Lege Proiektutik abiatuz burutu denez, generoaren ikuspegiari dagokionez aldaketa adierazgarriak barneratu gabe, lege proiektu horretarako eratu zen txosten bera erabil daitekeela ulertzen da, eranskin modura atxikitzen dena.»

Bertan Eusko Jaurlaritzari eskatu zaio bi lege-proiektu egin ditzala: bat euskal sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa (euskal sektore publikoa hartuta erkidegoko eta foru- eta udal-mailako administrazio publiko guztiei lotutako sektore publikoen multzo gisa), euskal sektore publiko efiziente eta efikaza egituratzeko xedearekin, orain dauden erakundeak arrazionalizatzeko; eta beste bat euskal sektore publikoaren gardentasunari, parte-hartzeari eta gobernu onari buruzkoa, baliabide publikoak kudeatzeko gardentasun erabatekoaren aldeko eta herritarren parte-hartzearen aldeko apustua egingo duena eta, gainera, printzipio orokorrez gai, herritarrek euskal administrazio publiko osoarekiko harremanetan dituzten oinarritzko eskubide eta betebeharrak jasoko dituen.

Halaber, eskatzen da, bi lege horiek egiterakoan parlamentuko taldeek Gobernuak baztertutako Euskadiko Herri Administrazioaren legearen proiektuari aurkeztutako zuzenketak aintzatestea, ahalik eta adostasun handiena lortze aldera, modu horretan, horien izapidea ahalik eta azkarren egiteko.

Azkenik, hurrengo saioen txanda hasi aurretik bi proiektuak Ganberara igortzea eskatzen da, izapidearekin lehenbailehen haste aldera².»

Horrenbestez, ez gaude legegintzako ekimen berritzaile baten aurrean, baizik eta «governantza» edo «gobernu on» izendatzen denari dagokionez ganberan aurkeztutako testu-zatiaren (Euskadiko Herri Administrazioaren Legearen proiektuaren III., IV. eta V. Tituluak) kopia hobetu baten aurrean, orain Euskal Sektore Publikoaren Gardentasun, Herri Partaidetza eta Gobernu Oneko Legearen aurreproiektuaren erregulazioaren xede dena.

Onartutako mozioan Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dionez bi proiektuak Ganberara igortzea hurrengo saioen txanda hasi aurretik, izapidea ahalik eta azkarren burutzeko, eta testu berria Euskadiko Herri Administrazioaren Legearen Proiektutik abiatuz egin denez, hasteko aginduan adierazten da inguruabar horiek «ahalbidetu behar dutela duela denbora gutxi oso antzekoa den eduki baterako partaidetzari dagokionez horren zehatza izan den prozesu bat burutu ez dadila berriro».

Adierazten da «8/2003 legean ez dela berez aurreikusten epeak murrizteko premiazko izapide edo prozedura bat (...) 14. artikuluan. Horrek lege izaera duten arauak eskatuta ez datozen izapideak modu arrazoituan alboratzea ahalbidetzen du. (...) Ulertzen da ez dela beharrezkoa genero-inpaktuaren ebaluazio-izapidea errepikatzea; batetik, txostenaren eskusioaren

² Generoaren Araberako Eraginari buruzko Txostena

suposizioa egituratzen duen erregulazioak antolakuntza-izaera duelako, eta, bestetik, txosten hori orain dela gutxi egin delako, euskal administrazio publikoaren legearen aurreproiekturako.

Ulertzen da, era berean, ez dela beharrezkoa Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen txostenak errepikatzea, ez eta Ekonomia eta Gizarte Batzordearena eta Datuen Babeserako Euskal Agentziarena ere. Kasu horietan, aipatutako aurreproiektuari buruz emandako iritzia nagusitzen da.»

3.- ESKUMENA ETA ARAU MAILA

3.1.- GAUZATZEKO ESKUMENA

Gernikako Estatutuak³ (aurrerantzean EHAE) gure autonomia erkidegoari eskumen berariazkoa aitortzen dio «autogobernurako bere instituzioen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari dagokionez, Estatutu honetako arauen barnean⁴» eta «Euskadiko sektore publikoari dagokionez, Estatutu honetako beste arau baten eraginpean ez dagoenez⁵.»

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren (aurrerantzean EAE) egitura eta antolaketari dagokionez, adierazi behar da Estatuko legegileak ez duela eredu espezifikorik ezarri Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean EK) 149.1.18 artikulua herri-administrazioen araubide juridikoaren oinarriak ezartzeko ematen dion eskuduntza baliatuta.

Administrazio-jardueraren alorrean, Espainiako Konstituzioko 149.1.18. artikulua horrek berak eskuduntza eskusiboa ematen dio Estatuari administrazio-prozedura erkidearen gai-alorra arautzeko, baina autonomia-erkidegoen berezko antolaketak eratortzen dituen berezitasunei kalterik egin gabe. Horrela, ulertu behar da (azken nabardura horren ondorio), EAEk eskumena duela gai-alor horretan eman den oinarrizko legediaren arau-garapena egiteko.

Hala ere, EAEk du eskuduntza eskusiboa Euskal Autonomia Erkidegoaren antolamendu propiotik eta hark emandako zuzenbide substantibotik eratortzen diren prozesu-arauak, administrazio-prozedurakoak eta arau ekonomiko-administratiboak emateko, hori agintzen baitu EHAEko 10.6. artikulua.

³ 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena:

⁴ *Ibidem.* 10.2. artikulua.

⁵ *Ibidem.* 10.24. artikulua.

Horrenbestez, ez da inolako zalantzarik planteatzen «Herri administrazioaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoan barneratutako entitate guztien antolaketa eta funtzionamenduaz⁶» arduratzeko eskumenaren inguruan.

3.2.- ESKUMEN FORMALA

Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18 a) artikuluekin bat etorritik, Jaurlaritzari dagokio lege-proiektuak onartzea, Legebiltzarrera igorri aurretik.

EAEko Administrazio Orokorraren barnean, Herri Administrazio eta Justizia Sailari dagokio proiektu hau sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko abenduaren 15eko Lehendakariaren 20/2012 Dekretuko 6. l) artikuluen arabera eta, zehazkiago esanik, Funtzio Publikoko Sailburuordetzari, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 15.1. artikuluen arabera. Herri Administrazio eta Justizia Sailburuordearen 2015eko ekainaren 8ko Aginduan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Legearen proiektua eratzeko prozedura abiatzekoan, «Herritarrak Hartzeko eta Administrazioaren Berrikuntza eta Hobekuntzarako Zuzendaritza izendatzen da legegintzako prozedura hau izapidetzeko ardura duen organo modura, hari "Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 18. artikuluen b) epigrafean xedapen orokorreko proiektuak, ekimenak eta antolaketa eta prozedura arloko egintza edo arauak eratu eta proposatzeko emandako eskumenarekin bat etorritik, hura sinplifikatu eta gizaritari so bere kalitatea eta eraginkortasuna hobetu asmoz"».

3.3.- ARAU MAILA

Proiektuaren arau-maila egokia Legearena da, izan ere, EAEren eskumenekoa den, autonomiaren estatutuak esleitu ostean, gai bat arautzeko da.

4.- PROIEKTUAREN EDUKIA

Txosten honen xede den Euskal Sektore Publikoaren Gardentasun, Herri Partaidetza eta Gobernu Oheko Legearen aurreproiektua horrela egituratzen da: azalpen-titulua duen azalpenezko atal bat, bost Titulutan eta dagozkion

⁶ Aurreproiektuaren 1.1. artikulua. Xedea.

kapitulutan banatutako 82. artikuluz osatutako xedapen-atal bat, eta hiru Xedapen Gehigarri, bi Xedapen Iragankor eta hiru Azken Xedapen barneratzen dituen azken atal bat.

Xedapen Orokorrak Eratzeko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3. artikuluan proiektu honen azterketari dagozkion irismena eta edukia finkatzen dira: «funts objektiboa zein den, haren edukia Legearen eta Zuzenbidearen arabera den eta araugintza-teknikaren gidalerroak bete diren, baldin eta halakorik balego».

Legegintza-teknika lege argi eta eraginkorrak emateko diziplina da, legearen hartzaila kontuan hartuz, hots, herrialde honetako herritarra. Edukiak eragina du legeen idazkera egokian ez ezik, ordenamendu juridikoaren unitate eta koherentzian. Legeak modu desegokian ematea, legeak teknikoki zehaztugabeak izatea edo egiturari dagokionez inkoherenteak izatea Zuzenbide Estatuko zutabe finkoenetako bat urratzea ekar dezake: segurtasun juridikoaren printzipioa, Auzitegi Konstituzionalak «zehaztasun eta legezkotasunaren batura» eta «arbitrarioritasunaren debeku» modura emana. Auzitegi Konstituzionalaren martxoaren 15eko 46/1990 epaian adierazten denez, Espainiako Konstituzioko 9.3. artikuluko eskakizunak, segurtasun juridikoari buruzkoak, lege-emaeleak araei dagokienean zehaztasuna bilatu behar duela inplikatzeko du, eta ez nahasmena, operadore juridiko eta herritarrek zer arautzen den jakin behar dute eta argiro nahasgarriak diren egoerak saihestu behar ditu⁷.

EAEen arau-teknikei buruzko arauak legearen proiektuak, dekretu eta aginduak eta ebazpenak eratzeko gidalerroetan jasotzen dira, Gobernuaren Kontseiluaren akordioz onartuak 1993ko martxoaren 23an (aurrerantzean, gure LEDAGJak). Estatuari dagokionez, Idazkariordetzaren 2005eko uztailaren 28ko Ebazpena jo beharko genuke, Arau-teknikarako gidalerroak onartzeko (aurrerantzean, Estatuaren Gidalerroak) uztailaren 22ko Ministroen Kontseiluaren Akordioari publikitate emateko. Gidalerro horietara jo dezakegu gure LEDAGJetan adierazitakoa osatu edo berresteko.

Edozein kasutan, aholkularitza honek badaki norberaren berezko estiloaren eta sarritan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak⁸ (aurrerantzean EABJ) teknikak egokiro gauzatzeko eskatzen duen moduaren arteko muga nahasi samarra dela. Horrenbestez, organo sustatzailearen baitan geratzen da muga horren zehaztasuna.

⁷ García-Escudero Márquez, Piedad. Legegintza-teknikaren Eskuliburua. Civitas. Madril. 2011.

⁸ Ikus, besteak beste, EABJ 161/201.

4.1.- AURREPROIEKTUAREN TITULAZIOA

Aurreproiektuaren tituluak⁹ —ez proiektu—, «Euskal Sektore Publikoaren Gardentasun, Herri Partaidetza eta Gobernu Oneko Legea», «Zehaztasunez eta zuzentasunez islatu beharko da arautzen den gaia, bere edukari buruzko ideia bat egiteko eta beste edozein xedapenetik bereizteko moduan¹⁰».

Tituluan adierazten denez, aurreproiektuaren esparru subjektiboa «Euskal Sektore Publikoa da»; haatik, aurreproiektuan horrela aipatzen da Euskal Sektore Publikoa:

(A) Azalpen-atala:

1. «Lege honetan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean bezala (zeina lege honen hainbat ataletan aipatzen den), jorratzen den gaiarekin — Administrazio Publikoa, oro har— berez lotuta dauden arautze-beharrizan guztiak barne hartzeko saiakera egiten da, eta, horrela, egitura publikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren kontzeptu-esparru bikoitzari koherentzia eman nahi zaio, erreferentziako esparru bat eskainiz, aplikagarria izan dadin, ildo orokorreari dagokienez behintzat, bai Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, bai eta gainerako euskal administrazioetan ere, foru- zein toki-administrazioak barne».
2. «I. Titulua, "Xedapen orokorrak" izenekoa, euskal sektore publikoaren funtzionamendua gidatzeko printzipio orokorrak finkatuta utzirik abiatzen da, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren legean dagoeneko aurreratuak ekarriz eta esparru honetara hedatuz, aldi berean, "administrazio on baterako eskubidearen" zehaztapen eta garapen modura, zeinak hartako eduki espezifikorekin, bere egiten baitu eskubide horri Europan ematen zaion forma, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 41. artikuluan».
3. «Modu horretan, titulu horretan (V. titulua), alde batetik, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren sorrera barneratzen da (...) euskal sektore publikoko entitateak aholkatuz publizitate aktiboari,

⁹ Behatu legegintza-ekimeneko zirriborroetan, gaztelaniaz eta euskaraz, «Legearen proiektu» titulua agertzen dela modu desegokian. Hori izango da testuak baitaratuko duen izaera, behin Gobernuaren Kontseiluak onartzen duenean, eta ez aurretik.

¹⁰ Gure LEDAGKak: Lehen Gidalerroa: Titulua: 6.- Edukia edo xedea

Estatuaren Gidalerroak; I. Gidalerroa: Legearen aurreproiektuen, Legegintzako Errege Dekretuko proiektuen, lege Errege Dekretuaren eta Errege Dekretuaren Egitura; b. 7. titulua. Izendapena

datuen irekierari eta informazio publikorako sarbideari dagokienez (...))»

4. «Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa ere sortzen da (...) euskal sektore publikoaren erabaki-prozesuetan eragin legitimoa izan nahi dutenena(...)»
5. «Testuari amaiera emateko hainbat xedapen gaineratzen dira, gehigarriak, iragankorrak eta azkenak, **testua gobernuko gainerako mailetan eta euskal sektore publikoa orokorki osatzen duten administrazioetan aplikatzeko modua zehaztekoak**, herrialdeko instituzio guztietan gobernu onaren eskema bat osatzeko xedez (...))»

(B) Xedapen-atala:

1. I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Lege honen helburua da (...) Euskal Sektore Publikoa eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzio eta entitateei dagokienez

2. 3. artikulua.- Aplikazio-esparrua

1. Lege honetan jasotako aurreikuspenak, lehenik eta behin, honako hauei aplikatuko zaizkie:

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organismo autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoei; halakotzat ulertuta Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean zehaztutakoa.

3. Halaber, arlo horietan legean xedatutako printzipio orokorrak aplikagarri izango dira. baldintza horietan eta berezko antolaketa-arauen arabera xedatutako moduan, Euskal Sektorea osatzen duten entitate guztietan.

4. Euskal Sektore Publikoaren zati dira orobat, aurreko atalean ezarritako ondorioetarako, Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, toki-korporazioak eta Euskal Herriko Unibertsitatea, bai eta maila instituzional bakoitzaren gobernuak eta organo parte-hartzaile,

aholku-emaile eta independenteak eta erakunde horiei aholku ematekoak ere. Erakunde eta organo horiek beren araudi propioaren eta lege honetan ezarritako printzipioen arabera gidatzen dira.

3. 4. artikulua.- Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioak

2. Funtzionatzeko printzipio gidari hori gauzatzeko, administrazio publiko guztientzat aplikazio orokorrekoa den arautegiko edukiez eta beren barne-funtzionamendua arautzen duten printzipioez gain, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarrita dagoen bezala, printzipio horiek aplikatu behar dituzte sektore publiko horretan sartuta dauden instituzioek eta entitateek, herritarrekiko interakzioan:

4. 6. artikulua.- Lege-aurreproiektu, plan estrategiko eta jarduera garrantzitsuen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa, eta esku-hartze publikoen beste ebaluazioak

3. Gainontzeko administrazio-jarduerari dagokionez, euskal sektore publikoko sailek edo erakundeek berek ebaluatu ahal izango dituzte beren eskumenekoak diren eta ebaluatu beharrekotzat jotzen dituzten esku-hartze publikoak, betiere ez baldin badago erabakiak hartzeko oinarri gisa har daitezkeen aurretiazko ebaluaziorik edo daturik.

5. III. TITULUA.- EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAZ.

6. 20. artikulua.- Egitura egokitzea informaziora iristeko eskubidera eta herritarren informazio-beharrizantara

4.- Euskal sektore publikoko gainerako administrazioek ere barnean esleitu beharko dute gardentasuna, informaziora iristeko eskubidea eta gobernu irekia sustatzeko eta koordinatzeko eskumena; hain zuzen ere, herritarrekiko interakzioaren gain eskumena esleituta duen sailari esleituko diote eskumen hori, eta hark informazioa eskuratzeko egindako eskaeren erregistroa egingo du.

7. 28. artikulua.- Kontratuei buruzko informazioa

6. Informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuek eta zuzenbide publikoko korporazioek informazioa argitaratuko dute euskal sektore publikoa osatzen duten entitate eta erakundeekin egindako kontratuei buruz.
8. 33. artikulua. Informaziora iristeko eskubideen titularrak eta eskatzaileen eskubideak
3. Informazio publikoa eskatzen duenak honako hauetarako eskubidea du:
- a) Lege honek ematen dizkion eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko, eskubideak behar bezala erabil ditzan, Euskal Sektore Publikoaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Legean aitortutako administrazio onaren eskubidearen arabera.
9. 42. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaera
6. Eskatzaileak Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan zuzendu ahal izango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateei.
- Atal honetan ezarritakoa ez da eragozpen izango noizbait Administrazioak beste hizkuntza batzuetan aurkeztutako eskabideei erantzutea erabaki dezan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.
- 10.45. artikulua. Ebazpena eta eskatutako informazioa ematea
4. Eskatutako informazioa Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardute-eremuari ez balegokio eta, (...)
- Horretarako, euskal sektore publikoa osatzen duten administrazioek lankidetzabideak jarriko dituzte, arrazoi hori dela eta sektore publiko desberdinen aurrean eskaerak egin beharrak dakartzan administrazio-kargak murrizteko.
- 11.48. artikulua. Erantzuleak.
2. Zehazki, honako hauek dira kapitulu honetan ezarritako diziplinazko arau-hausteen erantzuleak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargu edo zuzendaritzako langileztat hartzen direnak, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, eta euskal sektore publikoko gainerako entitateetako goi-kargu eta zuzendaritzako langileak, azken horiei lege hau aplikagarria bazaie.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileak, eta, hala badagokio, euskal sektore publikoko gainerako entitateetakoak, azken horiei lege hau aplikagarria bazaie.

12.54. artikulua. Zehatzeko ahala

2. Arau-haustek Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargu eta zuzendaritzako kideei egotzi ahal bazaizkie (...)

Euskal sektore publikoko gainerako entitateetako goi-kargu eta zuzendaritzako langileen kasuan, zehatzeko ahalaren titulartasuna entitatearen barne-araudiak berak ezarriko du.

13.59. artikulua. Parte-hartzea sustatzeko neurriak

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez parte hartzea eta administrazio elektronikoa garatzea sustatuko du, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarrita bezala. (...)

14.73. artikulua. Kontseiluaren eginkizunak

Agentziaren helburuak betetzeko, zeregin hauek ezarri zaizkio Gardentasunaren Euskal Kontseiluari:

b) Euskal Sektore publikoko entitateei aholkularitza eskaintzea

15.75. artikulua. Legebiltzarrarekiko harremanak eta euskal sektore publikoaren gardentasunari buruzko memoria.

1. Gardena- Gardentasunaren Euskal Agentziak urtero memoria bat eramango du Legebiltzarrera (...)

2. Artikulu honetan aipatzen den euskal sektore publikoaren gardentasunari buruzko memorian, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

c) Informazio publikorako irispidearen eta euskal sektore publikoaren gardentasunaren arloan egindako aholkularitza-jarduera.

(C) Azken atala:

1. Lehenengo xedapen gehigarria. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateen eta beren sektore publikoaren eremuan aplikatzea

1. Autonomia Erkidegoko toki-entitateen gardentasuna eta gobernu ona gai horretan Euskadiko Udal Legean ezartzen denaren arabera arautuko da, hargatik eragotzi gabe xedapen gehigarri honetan ezarritakoa.

2. Udal Lege hori onartu bitartean, lege hau indarrean sartzen denean, toki-erakundeei eta haien sektore publikoari aplikatu beharko zaie III. tituluko hirugarren kapituluan informazio publikora iristeko eskubideari buruz jasotzen duen erregulazioa.

2. Bigarren xedapen gehigarria. Lurralde historikoetako foru-organoetan eta haien sektore publikoan aplikatzea

1. Lege honetan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari buruz ezarritakoa aplikatuko da lurralde historikoetako sektore publikoen printzipio, helburu eta xedeetan, batik bat 4, 12, 13, 22 eta 61. artikuluetan ezarritakoari dagokionez.

2. Horretarako, foru-administrazioek politika publikoen plangintza-eta ebaluazio-arloko arauak aplikatuko dituzte, beren antolaketa-arauetan, araubidean eta funtzionamenduan xedatutakoaren arabera; arau horien artean egongo dira, ezinbestean, gobernu-planak egin, argitaratu eta ebaluatzea, eta administrazio-kargak gutxitzeari buruzko ebaluazioak.

3. Lurralde historikoetako foru-aldundiak publizitate aktiboari eta informazio publikora iristeari buruz oinarritzko legerian jasotako arauen mende egongo dira, beren antolaketa-arauek, araubideak eta funtzionamenduak xedatutako moduan. Nolanahi ere, lege honetan jasotako arauak dakartzaten printzipioak aplikatuko zaizkie, beren arauen ezaugarri diren berezitasun formalak eta materialak kontuan hartuta.

4. Lege honetan jaso diren parte hartzeko prozedura eta tresnen berme komunak aplikagarri izango zaizkie, foru-organoek –beren antolaketa-arauetan, araubidean eta funtzionamenduan xedatutakoaren arabera– parte hartzeko ezartzen dituzten prozesuei.

3. Azken xedapenetako lehena. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea aldatzea

3.- Aldatu egin da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

8. artikulua.– Entzunaldia eta jendurrean jartzea.

6. – Lege honetan eta Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Legean ezarritakoaren ondorioetarako, "jendurrean jartzea" da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86. artikuluan araututako izapidea.

Aurreproiektuaren 1. artikuluan, «xede» izenekoan, ezartzen denez, EAEko sektore publikoa da «zehazki» bere eremu subjektiboa eta, oro har, euskal sektore publikoa. Aurreproiektuko testuak batari eta besteari emandako tratamenduari so, badirudi eremua bietako lehenengoak osatzen duela eta euskal sektore publikoa izendatzen dena osatzen duten «euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoetan (...) eta haien baitako eta haietara atxikitako gainerako entitate laguntzaileetan¹¹» Legearen edukiko atal jakin bat aplikatu behar zaiela, Xedapen Gehigarrien bidez.

Horrela, badirudi aurreproiektuaren xede eta bere titulua ez direla egokiak.

4.2.- AZALPEN-ATALA: ZIOEN AZALPENA

Zioen azalpenak honako hauek jaso beharko ditu: «Hura (arau-proiektua) landu beharraren jatorri izan diren zioak, lortzea nahi deneko helburuak, horietan oinarri hartzen deneko fundamentu juridiko habilitagarriak, arauketarako erabili diren printzipio eta jokabide orokorrak hobeto ulertzeko beharrezkoak izan daitezenean, indarrean dauden xedapenetan legeak izango duen eragina eta, bereziki, dituen alderik berrienak¹²».

Zioen azalpena ez da arauaren alderdi hutsala; horren adibide de Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Autonomia Estatutua erreformatzeko 6/2006 Lege Organikoari buruzko 31/2010 Epaian bere doktrina eguneratu

¹¹ Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Legearen aurreproiektuaren 4.1. artikulua

¹² Gure LEDAGJak; Bigarren gidalerroa: Legearen proiektuen, Dekretuen, Aginduen eta Ebazpenen egitura: 1. Azalpen-zatia, 2. idatz-zatia.

duela arauen edukian zioen azalpenak duen garrantziari dagokionez, eta adierazi du arauzko baliorik ez izateak ez duela esanahi balio juridikorik ez duenik. Legeetako hitzaurreak eta zioen azalpenak -derrigorrezko ondorio juridikoak baitaratu gabe eta, horren ondorioz, Zuzenbidezko arauak duten berezko aginduzko balioa izan gabe- juridikoki balio kualifikatua dute arau horiek interpretatzeko jarraibide modura.

Halaxe da, arau bateko zioen azalpena irakurtzea baliagarria izan behar da -hala operadore juridikoarentzat nola hartako edukia ezagutzeko interesa duten herritarrentzat- haren ostean dauden artikuluen sarbide modura, eta bertan bere zio eta helburuei buruzko informazioa, arauak aurreko egoerarekin alderatuta dituen alderi berritzaileei buruzko informazioa -hala badagokio- eta testua idatzi duenak idazterakoan erabili dituen terminoei eman dien zentzua ulertzeko informazioa eman behar du. Horrela, lagungarria izango da legegintza-ekimena proposatzen duenak eman nahi duen esanahia argitzeko.

Aurrekoa adierazita, zioen azalpena idazteko moduan eta bertan hautematen den helburuarekin duen loturan jarri behar dugu arreta. Gure LEDAGJetan adierazten denez, bertako edukia «Ez da nahastu behar legebiltzarrerako izapidea burutzeko Legearen Proiektuaren testura atxiki beharrekoak diren Memoria eta aurrekariekin. Arauari buruzko azterketa zabal bat egiten da Memorian Zioen Adierazpenean jaso ziren aldeez aparte, erantzuna eman beharreko egoera edo fenomeno aipatuz, dauden alternatiba ezberdinak gogoraraziz, haren aldeko proposamena egiten deneko arrazoiak azalduz eta proposamenaren gai den xedapenak antolaketa edota finantza mailan izango duen eraginaren aurre-estimazioa eginez. Azkenengo hau, proposatzen dena Erakunde berriren bat sortzea izan dadinean bereziki». Horri dagokionez, Estatuko gidalerroetan adierazten denez, «ekidin egingo dira burubideak, deklarazio didaktiko edo laudatzaileak edo antzekoak¹³».

Horren ondorioz, zioen azalpenari dagokion idazketa berrikusi egin beharko litzatekeela uste dugu, araugintza-teknikako manuetara eta arauzko testu guztien azalpenetan gailendu behar den argitasunera egokitzeko, are gehiago informazio publikoaren gardentasunari eta kalitateari buruzko arau batean:

¹³ I. Gidalerroa: Legearen aurreproiektuen, Legegintzako Errege Dekretuko proiektuen, lege Errege Dekretuaren eta Errege Dekretuaren Egitura; c. Azalpen-atala. 12. Edukia

«Lege honetan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean bezala (zeina lege honen hainbat ataletan aipatzen den), jorratzen den gaiarekin —Administrazio Publikoa, oro har— berez lotuta dauden arautze-beharrizan guztiak barne hartzeko saiakera egiteko tesia islatzen da, arauzko alternatiba modura, eta, horrela, egitura publikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren kontzeptu-esparru bikoitzari koherentzia eman nahi zaio, erreferentziako esparru bat eskainiz, aplikagarria izan dadin, ildo orokorreari dagokienez behintzat, bai Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, bai eta gainerako euskal administrazioetan ere¹⁴, foru- zein toki-administrazioak barne.

Ildo horretatik, testu honen bidez, bereziki, eztabaida erabakitzailea sustatu nahi da gauza publiko deiturikoari buruz, herritarrek duten pertzepzioa hobetzeko, haren balioa handitzeko eta, finean, administrazio-kultura berri bat sortzen laguntzeko, garai hauek eskatzen dituzten paradigma berriak oinarri hartuta. Paradigma horiek lotuta daude gobernantza ona deitzen den horretako hainbat alderdirekin, triangelu kontzeptual gisa ulertuta: gobernantzak, gardentasunak eta arazo publikoetan herritarrek izan behar duten parte-hartzeak osatzen dute triangelu hori, eta abiapuntutzat hartzen da horietako bakar batek ezin duela berak bakarrik funtzionatu edo iraun, beste biak alde batera utzita.

Horrela, ebaluazioa beharrezkoa da gardentasunari zentzua emateko, edukiak emateko, bestela erakusleihu huts bat baino ez bailitzateke izango. Gardentasuna, halaber, parte-hartzearen ezinbesteko premisa bat da; izan ere, administrazio lauso baten aurrean, debaterako oinarrizkoak diren datu eta elementurik ez luke izango, eta, hortaz, debatea hutsala izango litzateke. Eta, azkenik, bai gardentasuna bai herritarren parte-hartzea ezinbesteko tresna dira politika publikoen eragina neurtzeko benetako ebaluazio batean; ebaluazio hori osatugabea litzateke, are itxurazkoa ere, arau eta programa publikoen inguruko kontsulta zabalik egin gabe utziko balitz, edo erabilitako informazioaren ezinbesteko kontrastea ere egingo ez balitz. Horrek guztiak bermatu behar du erabiltzen diren datuak benetakoak direla, azterketa publikoaren mende egotean ematen den bermea daukatela, eta herritarren benetako hautemate eta lehentasunekin bat datoze la, haiek asetzera bideratuta baitago politika publiko oro.

4.3.- XEDAPEN-ATALA

Aurrez esan den moduan, xedapen-atal 82 artikuluk osatzen dute, bost titulutan banatzen direnak, bakoitzari dagozkion kapituluekin.

¹⁴ Jakina, errore baten aurrean gaude, ezinbestean: «bai eta gainerako euskal administrazioetan ere, foru-zein toki-administrazioak barne». Badirudi, foru- eta toki-administrazioaz eta EAeko administrazioaz gain, badagola «euskal administrazio» gehiago —eta ezin da Estatuko administrazioa izan, hura ez baita «euskal administrazioen» barnean beste bat—.

Jarraian, Legearen aurreproiektura atxikitako azalpen-memorian atal honi buruz adierazten dena ekarriko dugu hona:

«I. Titulua, funtsean, Autonomia Erkidego honetako sektore publikoari dagokionez legearen helburua, xedeak eta aplikazio-eremua orokorki zehaztuz hasten da. Hala ere, ez da ahanzten legeak sektore publiko horrek Euskadiko herri administrazio guztiekin eta haiekin lotutako esparru instituzional eta instrumentalekin izan behar duen eta duen loturaren tratamendurako deiera argia duela. Ondoren, euskal sektore publikoaren funtzionamendua gidatzeko printzipio orokorrak finkatzen dira, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren legearen aurreproiektuan dagoeneko aurreratuak ekarriz eta esparru honetara hedatuz.

Beraz, autonomikoarekin batera, foru- eta toki-sektore publikoak hartzen dira aintzat eta, behar bada, estatukoa ere, gauza publikoaren sorrera- eta transformazio-prozesua, Administrazioak aukeratu beharreko ekintza-aukera ezberdinek sor ditzaketen inpaktu positiboaren edo negatiboaren ezinbesteko ebaluazioa, horren inguruko herritarren lehentasunen eta iritzien aintzatespenak eta arriskuak saihestea zein gizarteari irekitzen zaizkion aukerak aprobeztatzea ahalbidetuko duten erabakien hartzea modu egokian neurtu ahal izateko, euskal sektore publiko deituko litzatekeenaren esku-hartzearen bidez (horrela definitzen da gero, 1.3 artikuluan).

Legebiltzar-mailan martxan dauden ekimenen eta gure arkitektura instituzionalaren koherentzia politikoa lantzen duten beste eremu batzuen aldibereotasunaren haraindian interpretatzen da, egungo gehiengo politikoak lege horretarako nahi duena zerbitzu publikoa helburu duen euskal sektore publikoaren multzoaren gainean hausnartu eta diseinatu daitekeela, inguruneari lege horrekin agortzen ez diren eta, aldiz, horri esker bultzatu ahal izango diren tresnak emanda.

Nabarmentzekoa da, adierazpenen haraindian, legeak ezin duela helburu hartu antolaketa instituzionalaren araudia aldatzea, LHL den harremanen araua barne, batez ere, aspektu eztabaidagarrien iturria Autonomia Estatutuari eta Konstituzioari dagokion dimentsioa bada.

Lehenengoak, gaur egun Herritarren Lege Ekimenari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legean jasota dauden eskema eta bermeak baliatuz, haren ordean etor daitekeena baztertu gabe, atea zabaltzen dio figura berritzaile horri; izan ere, horren bitartez, Jaurlaritzari aukera ematen zaio herritarren eskariak bere jardueran txertatzeko, betiere haien egokitasunagatik edo daukaten sostengu zabalagatik aintzat hartzea merezi baldin badute, baina politika publikoen gainean Jaurlaritzak duen erabakitzeko eta zuzentzeko azken gaitasunari uko

egin gabe. Alde horretatik, Administrazio Publikoaren Lege-proiektuaren jatorrizko idazketari dagokionez, araudizko herri-ekimenari buruzko artikulua atalen ordena aldatzea eta legegintzako herri-ekimeneko 8/1996 Legearen erreferentzia kentzen da. Teorian, azken hori egun izapidetzen ari diren berriarengatik ordeztu behar dute, bai eta zuzenketa teknikoren bat erantsi ere.

Bigarrenak ikuspegi berritzailea eta osagarria ekartzen du; izan ere, legeak edo arauak ematerakoan ekiteko gaitasuna emateaz gain, Administrazioa gonbidatzeko aukera ematen zaio herritarri, horrek herritarren artean gizarte-helburuarekin eta irabazi-asmorik gabe sor litezkeen ekimen eta jarduerak pribatuetan parte hartu eta lagundu ahal izateko, horiek bereganatu gabe.

Beste aldetik, sail eskudunak herritarren partaidetzaren arloan gauzatu beharreko partaidetza-txostenei buruzko artikulua eranste da, horien ondoriozko publikitatearekin.

Kapitulu honetan, partaidetzaren oinarrizko lau tresna arautzeko errefusa nabarmendu behar da, Aragoiko erregulazioan bezala; izan ere, nahi hori existitzen den tresnen katalogoa nahita irekita uzteko testuaren espirituaren aurka doa. Gainera, bere idazketa zabala eta anbigua dela eta, uste da aurreikusitako "oinarrizko irudiek" jadanik finkatutako beste irudi juridiko batzuk oztopatzen dituztela; hala nola, herri-galdeketa, erreferendumak edo legegintzako herri-ekimenak. Hori ez da proiektu honen asmoa.

Halaber, "talde interesdun adierazgarriak" "antolatutako gizarte zibilarengatik" ordezkatzeko ukatzen da; izan ere, jatorrizkoan erabilitako terminoa koherenteagoa da erregistroan erabilitako terminologiarekin, eta partaidetzarako erregistroaren irudia sendotu nahi du, lobbyak eta presio-taldeak hobe kontrolatzeko.

Era berean, partaidetzako prozesuak pertsona interesdunentzako buruz izatearen aurreikuspena kentzea ukatzen da, gutxienez, parte hartu behar duen gutxienezko kopuruari dagokionez, eta interesdunak kontzeptuatzeko eta prozesua beti beste pertsona batzuen partaidetzara irekia egotea kaltetu gabe. Prozedura espezifikoei buruzko eskubide zehatzak ematen diren heinean, horien subjektua pixka bat zehaztu behar da eta, horretarako, interesdunaren kontzeptu zehatzaz baliatu behar da. Bestela, prozedura baliogabetu egin liteke hasieratik zehaztu gabeko pertsona bat ez deitu izanagatik, eta ezin izango litzateke parte hartzera deitutako pertsonen kopuru potentzialki amaigabea mugatu; irekia egongo bailitzateke beti.

Halaber, interes-taldeak edo lobbyak partaidetza-prozesuetatik ateratzeko nahia ukatzen da; izan ere, horrekin nahi denaren aurka, lobbyak ondo kontrolatzeak ez du debekatzea esan nahi, ez eta euren existentziaren errealitatea ezeztatzea ere. Aldiz, errealitate hori erregularizatzea da, Europa mailan egin bezala eta ELGAK gomendatu bezala. Lobbyen errealitatea azaldu gabe, herritar guztien partaidetza-eskubideak aitortzeak euren eragina handituko luke; izan ere, tresna berriak emango lizkieke, modu ezkutuan eta bidegabean.

Bestalde, partaidetzako plataforma teknologikoa zehazki aipatzea ukatzen da; izan ere, Lege honek sortutako Gobernu irekiaren plataformak bete behar du rol hori.

Hasiera batean, araudizko herri-ekimenaren prozedurako partaidetza populazioaren erroldan inskribatutako guztiei irekitzea ukatzen da, partaidetza politikoaren eskubidearen aldarrikapen-modua izan daitekeela uste baita. Aldiz, eskubide politikoak dituzten herritarrei mugatuta dagok, 23 EB artikulua aginduz. Gainera, beste era batean egiteak balizko disfuntzioak sortuko lituzke hori gauzatu behar dutenen eta eskaerak erantzuten dituen Gobernu hautatu duten hautesleen artean.

Era berean, araudizko herri-ekimenaren prozeduran ekimenari buruzko erabakia irudikatzen duten txostenak jasotzeko aukera kentzea ukatzen da, prozeduran izango lirakekeen atzerapenak arrazoituta. Eta hori, ekimenari buruzko erabakia arbitrarioa ez den erabakia izan behar delako, behar bezala pentsatutakoa eta frogetan oinarritutakoa. Beraz, ezin da beharrezkoak diren txostenak jasotzeko aukera kendu, horren inguruan ebazteko judiziozko elementuak falta direnean. Gainera, aukera horrek ez du aldaketarik ekartzen artikulua aurreikusitako erantzun-epeetan eta, ondorioz, arrazoitutako atzerapenek ez diote erantzuten proiektatutako araudiaren errealitateari.

V. Titulua, izaera instituzionala duena, “gardentasun eta gobernu onerako erakunde eta instituzioei” buruzkoa da.

Titulu horretan sartzan dira, hortaz, batetik, Gardentasunaren Euskal Agentzia – Gardena sortzea, gardentasun-arloan lege hau behar bezala betetzen dela zaindu behar duen erakunde espezializatua. Ildo horretatik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko biderei eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24.6 artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik errekurtsoak ebatzi behar dituen organo gisa definitzeaz haratago, ikuspegi zabal batetik eraten da Agentziaren lana, estatu mailan Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak egiten duenaren bidetik, euskal sektore publikoko erakundeei aholku emanez publizitate aktiboari, datuak irekitzeari eta informazio publikoa eskuratzeari dagokienez, eta herritarrei informazioa emanez gardentasunarekin eta informazioa lortzearekin lotuta dituzten eskubideen inguruan, baina berezitasun bat erantsita, kasu honetan euskal zehaztasunei erantzun behar baitie, hiru gobernu-mailatan jardunez, eta independentziaz eta objektibotasunez jardun behar du beti, bere eginkizunak betetzeko orduan inolako aginduren mende egon gabe.

Bere erregulazioari dagokionez, artikulua desberdinduan Gardentasuneko Euskal Kontseiluaren definizioa bereiztea, bere eraketaren inguruan taldeek proposatutako doikuntzekin, talde parlamentarioen, Euskal Herriko Unibertsitatearen, kontsumitzaileen zein erabiltzaileen elkarten edo sindikatuen ordezkariak sartuta.

Legebiltzarrak Gardena presidenteari izendapenean (gainera, horren funtzioak agentziaren ordezkariak instituzionalarekin osatzen dira) duen rola zabaltzea onartzen da, baina beste taldeek proposatzen duten Legebiltzarraren

hautaketa zuzena beto-aukerarekin ordezkaturata, Legebiltzarrean agertu ondoren. Aukera horrek zentzua ematen dio agertzeari eta Legebiltzarrean izendapena baino funtzionalagoa da, teknikoa izaten jarraitu behar duen kargua ganberako indarren zerrendari zuzenean erantzuteko behararengatik guztiz politikoa den kargu bihurtzea saihestuta, Gobernuaren izendapenaren ontasunaren presuntzioa guztiz onartu behar izan gabe.

Aldiz, kapitulua aldatzea ukatzen da, Datuen Babeserako Euskal Agentzia errekurtsioa jartzeko organoa izatearen zentzuan, jadanik adierazitako arrazoiengatik eta, era berean, Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa izatea ukatzen da; izan ere, bere funtzioa ahalmen publikoen ariketan datza nagusiki eta, ondorioz, Euskal Sektorre Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen irizpideen arabera, organismo autonomoa izan behar da

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa ere sortzen da, bi helbururekin: batetik, herritarren parte-hartzea sustatu nahi du, herritarrentzako edo talde interesdunentzako lehentasunezko bideak edo alerta goiztiarreko eskubideak ezarriz. Eta, bestetik, aurrekoaren osagarri gisa eta Europako Parlamentuaren eta Batzordearen Gardentasunaren Erregistroaren eta antzeko beste organismo batzuen lortzari jarraituz, herritarrei informazio zuzena ematen die, lege honetan ezarritako parte-hartze eskubideen bidez euskal sektore publikoaren erabakitze-prozesuetan zilegitasunez eragin nahi duten presio-taldeei edo "lobbyei" eta beste interes-talde batzuei buruz, hainbat oinarriko galderari erantzunez, hala nola zer-nolako interesak dituzten, nork defendatzen dituen eta zenbateko aurrekontua duten.

Azkenik, "Gobernu Irekiaren Plataforma" aurreikusten da testuan, zeinari eginkizunak esleitzen zaizkion gardentasunaren ikuspegitik, Gardentasun Atari baten lanak egiteko, herritarren eskura jar dezan aurreko artikuluetan aipatzen den bere jardun-eremuari buruzko informazio guztia, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 10. artikuluan ezarri bezala. Beste ikuspegi batetik ere esleitzen zaizkio eginkizunak, eginkizun zabalagoak emanez; esaterako, Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eta herritarren arteko interakziorako gune iraunkorra izatea, ekintza publikoan kudeaketa partekatura eta erantzunkidera bideratua, non gardentasun, parte-hartze eta kontu-ematearen printzipioak gauzatzen diren, aurreko proiektuetan ("Irekia", kasurako) hasitako lanari jarraipena emanez.

Alde horretatik, Gobernu Irekiaren Plataformatik horren eta beste euskal administrazio publiko batzuen arteko lankidetzak sustatzeko nahia onartzen da.

Lege-testuaren amaieran hainbat xedapen daude (gehiak, iragankorrak eta azkenak), testuaren aplikazioa euskal sektore publiko osoa eratzen duten gainerako gobernu- eta administrazio-mailetara doitzeko; hartara, herrialdeko erakunde guztietan osatuko da gobernu onaren eskema, eta araua ordenamendu juridikoan modu harmoniatsuan txertatuko dela bermatzen da; egutegi bat ere jasotzen da, ebaluazio-kontuetan hainbat obligazio aplikatzeko,

eta indarrean dauden beste testu batzuetan lege-aldaketak egin eta egungo araudira egokitzeko».

4.4.- AZKEN ATALA.

Legearen aurreproiektuaren azken atala horrela egituratzen da:

- XEDAPEN GEHIGARRIAK
 - Lehenengo xedapen gehigarria. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateen eta beren sektore publikoaren eremuan aplikatzea
 - Bigarren xedapen gehigarria. Lurralde historikoetako foru-organoetan eta haien sektore publikoan aplikatzea
 - Hirugarren xedapen gehigarria. Gobernu onaren printzipioak aplikatzea Eusko Legebiltzarrak izapidetutako lege-proposamenei.
- XEDAPEN IRAGANKORRAK
 - Lehenengo xedapen iragankorra. Lege honek informazio publikora iristeko eskubideari buruz arautzen duena lurralde historikoetako foru-organoen eremuan aplikatzea.
 - Bigarren xedapen iragankorra. Lege honek politika publikoen plangintza eta ebaluazioari buruz arautzen duena aplikatzeko egutegia:
- AZKEN XEDAPENAK
 - Azken xedapenetako lehena. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea aldatzea
 - Azken xedapenetako bigarrena. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legea aldatzea.
 - Azken xedapenetako hirugarrena. Lege hau indarrean sartzea

Aurreproiektuaren azken atalari dagokionez, horrela mintzo da azalpen-memoria:

«Lehen xedapen gehigarria legeak tokiko administrazioetan izan beharreko aplikazioa definitzeaz arduratzen da. Normala den bezala, hori modu harmoniatsuan egin behar da, egun Kongresuan izapidetzen ari den Udal Legearen proiektua onartzeko aukerarekin.

Bigarren xedapen gehigarriak (lehenengo xedapen iragankorrarekin) foru-organoak aztertzen ditu, euren buruak antolatzeko duten gaitasunari dagokionez, baina haiek emandako foru-arauek esandakora egokitu beharreko gutxieneko printzipio batzuk ezarrita.

Antzera, hirugarren xedapen gehigarriak Lege honen hainbat arauk aipatutako Eusko Legebiltzarrarekiko Lege horren aplikagarritasuna modulatu du, eta bereziki, xedapen orokorren prestakuntzan zein arau-inpaktuen ebaluazioan parte hartzeko eskubideari buruzko Lege honen xedapenak aplikagarriak ez diren arau-proposamenen izapidetzea, horiek ganberaren barne-araudiak ezarritakoaren arabera errespetatzea kaltetu gabe. Xedapen hori Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 aldatzeko bigarren azken xedapenaren aldaketarekin osatzen da. Horrela, ildo berean eta guztiz hautaz, Legebiltzarrak testu horiei buruzko organo horren irizpena eskatzeko aukera gaineratzean (orain arte ez zen aukera hori existitzen; izan ere, organo horren eskumenak bere legeak ebaluatzen ditu zorrozki), segurtasun eta kalitate juridiko handiagoa eman nahi die testu horiei.

Azkenei dagokionez, aipatzekoa da, batetik, xedapen orokorrak prestatzeko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 legearen aldaketa. Horrek arau-inpaktua ebaluatzeko prozedura berriak iter arauemailean eta legiferentean kokatzen du eta, bestetik, horren eta honen terminologia bateratzen ditu, lege berriak «erakusketa publikoko» bezala deitutako «informazio publikoaren» izapideari dagokionez, gardentasunaren tituluak aipatutako «informazio publikotik» hobere bereizteko.

Atal honetan, ukatu egiten dira kide anitzeko organoen zerrenda egiteko eta koherentziaren eta arrazionaltasunaren ebaluazioa egiteko Administrazioa bultzatzeko proposamenak; izan ere, Sektore Publikoko Antolakuntza eta Funtzionamendu Legearen proiektuari dagozkio. Halaber, baztertu egiten da sartzeko errekurtsoak beti Gardenaren bidez ebatzea, Lurralde Historikoen berezko organoak sortzea erabakitzeke tokirik utzi gabe, foru-erakundeen autoantolaketaren eskumena Lege horren eskuz kanpo dagoela eta errespetatu egin behar dela ulertuta».

5.- LEGEGINTZA-TEKNIKA

Puntu honetan, lege-aurreproiektua idazteko gure LEDAGJak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina betetzen direla egiaztatu behar da.

Gure LEDAGJetan laugarren gidalerroan adierazten denez, tituluak eta kapituluak «zifra erromatarrak erabiliz zenbakituko dira, ordinal arabiarretan emango diren sekzioetan izan ezik». Agindu hori ez da betetzen aurreproiektuaren kapituluetan, izan ere, ordinalekin zenbakitzen dira, eta ez zifra erromatarrak erabiliz¹⁵: Lehen kapitulua, bigarren kapitulua ...; berez, zuzen idatzita, horrela eman beharko litzateke: I. kapitulua, II. kapitulua, etab.

¹⁵ Ikus Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen aurreproiektua, Euskal Enplegu Publikoaren aurreproiektua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren legearen aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Legearen aurreproiektua, horietako kapituluak zenbaki

Hirugarren gidalerroan artikulua banatzeko lerroaldeetako edukiei buruz zera adierazten da:

«Artikuluak, laburrak izan behar dira eta hiru edo lau lerroalde izango dituzte gehienera. Zenbaki arabiarrik jarriko zaizkie lerroaldee. Bakarra baldin bada, ez zaio jarriko. Gaiaren konplexutasuna dela medio, laburtasuna ematea ezinezkoa denean, esaldi bakar batez osatutako atal lutzerik ez da sartuko. Kasu hauetan, ideia nagusia, lehenengo lerroaldean jasoko da eta zehaztasunak hurrengoetan. Hau da, artikulu bakoitzak, gai bakarra; lerroalde bakoitzak, perpaus bakarra; perpaus bakoitzak, ideia bakarra».

Aurrekoa kontuan hartuta, ideia berari buruz ari diren lerroaldeak dituzten artikulua berridatzi egin beharko liratekeela uste dugu. Halaxe da, lerroalde bat 31.4. artikulua, «Interes orokorreko informazioa», hasten den modu berean hasten bada, «4. Halaber,», horrek zera erakusten du, ideia berri bat azaldu ez, baizik eta aurreko lerroaldeko ideia sakondu edo osatu egiten dela. Horregatik hasten da modu horretan eta aurreko lerroaldean aipatutako erakunde berdinen inguruan mintzatzen dela adierazten du berriro:

Honako hau dioenean:

«3. Jakitera emango da zein diren herritarrei zerbitzu emateko eta herritarren parte-hartzerako bideak, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako kexa-kopurua eta onartutako edo herritarren alde ebatzitako kexen kopurua edo ehunekoa.

4. Halaber, argitaratu egingo da herritarrek gehien eskatzen duten informazioa eta lege honen bidez araututako irispide-eskubidea baliatuz gehien eskatzen den informazio publikoa».

Esan zezakeen:

«3. Jakitera emango da zein diren herritarrei zerbitzu emateko eta herritarren parte-hartzerako bideak, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako kexa-kopurua eta onartutako edo herritarren alde ebatzitako kexen kopurua edo ehunekoa.

Halaber, argitaratu egingo da herritarrek gehien eskatzen duten informazioa eta lege honen bidez araututako irispide-eskubidea baliatuz gehien eskatzen den informazio publikoa».

Haatik, badirudi bi ideia ezberdin direla: alde batetik, 3. lerroaldean «bideak, prozedurak eta esku-hartzeetako emaitzak» emateaz hitz egiten da, eta hurrengoan «informazioa argitaratzeaz» hitz egiten da Horren ondorioz, elkarren arteko loturarik gabeko bi lerroalde ezberdin paratu beharko lirатеkeela uste dugu («Era berean», «Halaber», «Modu berean»):

«3. Jakitera emango da zein diren herritarrei zerbitzu emateko eta herritarren parte-hartzerako bideak, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kegak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako kexa-kopurua eta onartutako edo herritarren alde ebatzitako kexen kopurua edo ehunekoa.

4. Argitaratu egingo da herritarrek gehien eskatzen duten informazioa eta lege honen bidez araututako irispide-eskubidea baliatuz gehien eskatzen den informazio publikoa».

III. tituluko Hirugarren Kapituluaren (III. kapitulua adierazi beharko litzateke) izenburua «INFORMAZIO PUBLIKORA IRISTEA» da eta bertako lehen artikulua (33. artikulua) «Irispide-eskubidearen titularrak eta eskatzaileen eskubideak». Kapituluaren titulazioak ez du bere edukiari buruzko informaziorik ematen. Aitzitik, 33. artikuluan informazio hori ematen da. Uste dugu III- Kapituluaren izenburua «Informazio publikora iristeko eskubidea» izan beharko litzatekeela—kontuan izanik hura osatzen duten artikulua informazio horren konfigurazio, erabilpen eta mugen ingurukoak direla—, eta 33. artikulua «Titularrak eta edukiak». Haatik, 33. artikulua edukia aztertzen badugu, informazio publikora iristeko eskubidea ez ezik, beste zenbait eskubide ere zerrendatzen direla ikusiko dugu:

«a) Lege honek ematen dizkion eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko, eskubideak behar bezala erabil ditzan, Euskal Sektore Publikoaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Legean aitortutako administrazio onaren eskubidearen arabera.

b) Eskatzen duen informazioa jasotzeko eta, gainera, lege honek ezartzen dituen gehieneko epeen barruan jasotzeko.

c) Eskatutako informazio publikoa berak aukeratzen duen eran eta formatuan jasotzeko, legearekin bat etorriz.

d) Eskatutako informazioren zati bat edo informazio osoa zergatik ez zaion ematen jakiteko, eta informazioa berak eskatutako formatuan edo eran zergatik ez zaion ematen jakiteko.

e) Eskatutako informazioa jasotzeko aplikatu dakizkiokeen tasen eta prezioen zerrenda ezagutzeko, eta horiek ordaintzetik salbuetsita geratzeko arrazoien berri izateko.

f) Jasotako informazioa erabiltzeko, aurretiazko baimenik gabe, lege honetan eta gainerako ordenamenduan ezarritako mugen barruan».

Horrenbestez, badirudi III. Kapituluako edukia ez datorrela bat bertako edukiarekin. Halako inkoherentzia ez litzateke gertatuko 33. artikuluko 3. lerroaldean «Informazio publikoaren eskatzaileak eskubide hauek ditu:» idatzi beharrean, honakoa adieraziko balitz: «Informazio publikora iristeko eskubideak eskumen hauek baitaratzen ditu:

Testuan erabiltzen den terminologia zaindu egin behar da kontzeptu beraren inguruan hitz egiteko termino ezberdinak erabiltzearen ondorioz inkoherentziarik izan ez dadin, eta arau juridiko batean desegokiak diren termino arruntak erabil ez daitezten:

«7. artikulua.- Lege-proiektu, plan estrategiko eta jarduera garrantzitsuen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa: definizioa eta ebaluatzeko prozedura

1. Lege honen arabera, hauex izango da inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa: modu zehatz eta ordenatuan eskuratutako informazioa behatu, neurtu, aztertu eta interpretatzeko prozesu sistematikoa, politika publikoko aukera desberdinek izan ditzaketen kostuen eta onura ekonomiko, sozial eta ingurumeneko zenbatespen kualitatiboa eta, ahal den heinean, kuantitatiboa egitera bideratua –diseinuaren, praktikan jartzearen eta eraginaren ebidentzietan oinarrituz proposamenak¹⁶ edo balorazioak egiteko–, eta organo eskudunak hartu beharreko erabakiari buruzko txostena ematen duena. Ahal bada, aurretiazko ebaluazioak kontuan hartuko du aurreikusitako esku-hartze publikoek indarrean dauden beste esku-hartzeekin edo egitekoak direnekin daukaten interakzioa.

«29. artikulua.- Jarduera publikoari buruzko informazioa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde eta entitateak eta hartako kide diren subjektuak (...))»

¹⁶ Gaztelaniazko «propositivo» hitza ez da agertzen Espainiako Errege Akademiaren gaztelaniazko Hiztegian

31. artikulua.- Interes orokorreko informazioa

2. Titulu honetan aipatzen diren subjektu publiko eta pribatu guztiak (...)

33. artikulua. Informaziora iristeko eskubideen titularrak eta eskatzaileen eskubideak

1. Informazio publikora iristeko eskubidea pertsona orori, fisiko edo juridiko, dagokio, eta baita (...))»

Azken atalari dagokionez, xedapen gehigarrien, nahiz iragankorren eta azken xedapenen izenburuan erreparatu behar dugu:

«XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria (...)

Bigarren xedapen gehigarria (...)

Hirugarren xedapen gehigarria (...)

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra (...)

Bigarren xedapen iragankorra (...)

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena (...)

Azken xedapenetako bigarrena (...)

Azken xedapenetako hirugarrena (...))»

Gure LEDAGJetan ez da ezer adierazten azken atala osatzen duten «lau kategorien¹⁷» titulazioari dagokionez: Xedapen gehigarriak, iragankorrak, indargabetzaileak eta azken xedapenak.

Estatuko gidalerroetan zera adierazten da:

«38. Zenbakikuntza eta titulazioa

Azken atala osatzen duten xedapen mota bakoitzak berezko zenbakikuntza korrelatiboa izango du, hizkiz adierazitako ordinalean (gaztelaniaren kasuan ordinal femeninoan) emanda. Xedapen bakarra egongo balitz, bakar izendatuko da. Xedapenek izenburua izan behar dute.»

«43. Xedapen motak.

¹⁷ Bigarren gidalerroa: legearen proiektuen, dekretuen, aginduen eta ebazpenen egitura; III.- Azken atala.

Idazketarako baterako irizpideak ezartze aldera, azken atalari dagozkion ohiko xedapen moten adibideak ematen dira:

- Xedapen gehigarri bakarra. Organoak ezabatzea.
- Lehenengo xedapen iragankorra. Zuzendariordetza orokorraz azpitiko maila organikoko unitate eta lanpostuak.
- Azken xedapenetako lehena. Eskumen-titulua.
- Azken xedapenetako bigarrena. Araudia garatzeko ahalmenak ematea.
- Azken xedapenetako hirugarrena. Aurrekontuaren aldaketak».

Puntu honi dagokionez, Aholku Batzorde Juridikoak zera adierazi izan du:

Xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta azkenen osaeran, izendapen korrelatibo hau hobesten da: lehenengo xedapen gehigarria, bigarren xedapen gehigarria, atalari xedapen gehigarrien izenburu orokorra eman eta gero zenbakikuntza adierazi (lehenengoa, bigarrena, etab.) beharrezan.¹⁸»

Nolanahi ere, praktikak erakusten duenez, azkenaldian onartutako legeak eta legedi honetan eratzen ari diren aurreproiektuak Aholku Batzorde Juridikoak adierazitakoaren aldekoen eta Estatuko Gidalerroetan adierazitakoaren aldekoen artean bereizten dira:

1. 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa:

- Lehenengo Xedapen Gehigarria - Jardueren hasiera
- Bigarren Xedapen Gehigarria - Gastuak
- Hirugarren Xedapen Gehigarria - Beste entitate batzuen ordezkaritza
- Azken xedapena.- Indarrean jartzea.

2. 3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017 aldirako Euskadiko Estatistika Planarena.

- Azken Xedapenetatik lehena. - Planaren indarraldia.
- Azken Xedapenetako Bigarrena. - Luzapena.
- Azken Xedapenetatik hirugarrena. - Indarrean jartzea.

¹⁸ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 82/2010 Irizpena, 101. paragrafoa.

3. 1/2014 Legea, 2014ko ekainaren 26koa, kargu publikoen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzekoa:

- Lehenengo Xedapen Gehigarria - Lurralde historikoak
- Bigarren Xedapen Gehigarria - Tokiko entitateak
- Hirugarren Xedapen Gehigarria - Arartekoa eta Kontu Publikoen Euskadiko Auzitegia
- Lehenengo Xedapen Iragankorra - Lege hau indarrean jarri aurretik izendatutako kargu publikoen aitordenak berritzea.
- Bigarren Xedapen Iragankorra - Legearen aurretik baimendutako baliokidetasunak
- Xedapen indargabetzailea
- Azken Xedapenetan Lehena.- 18. artikulua aplikatzea
- Azken Xedapenetan Bigarrena.- Indarrean jartzea

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legearen Aurreproiektua

- Lehenengo Xedapen Gehigarria.- Alderdi politikoekin lotutako Fundazioak.
- Bigarren Xedapen Gehigarria.- Beste Administrazio batzuei informatzeko betekizunak
- Hirugarren Xedapen Gehigarria.- Notaritzen betebeharrak
- Xedapen indargabetzailea
- Azken Xedapenetan Lehena.- Erregelamendu bidezko garapena.
- Azken Xedapenetan Bigarrena.- Indarrean jartzea.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Legearen Aurreproiektua:

- Lehenengo Xedapen Gehigarria.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrera eta Euskadiko Kirol Portua S.A. enpresara atxikitako langileen integrazioa.
- Bigarren Xedapen Gehigarria.- Zehapenen zenbatekoa
- Hirugarren Xedapen Gehigarria.- KAIKAK Jardueren hasiera
- Lehenengo Xedapen Iragankorra.-Portuko Plan Bereziei buruzko Araubide iragankorra.
- Bigarren Xedapen Gehigarria.- Portuko jabari publikoa erabili eta okupatzeko gaitzen duten tituluei buruzko espedienteen araubide iragankorra.
- Lehenengo Azken Xedapena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen

Testu Bateratua aldatzea; testu hori irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen.

6. Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legearen Aurreproiektua¹⁹:

- Xedapen Gehigarria (izenbururik gabe)
- Xedapen Iragankorra (izenbururik gabe)
- Xedapen indargabetzailea (izenbururik gabe)
- Azken Xedapenetan Lehena (izenbururik gabe)
- Azken Xedapenetan Bigarrena (izenbururik gabe)

7. Mendekotasunei buruzko Legearen Aurreproiektua²⁰:

- Lehen xedapen gehigarria. Hizkuntza ofizialak erabiltzea
- Bigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalen tratamendua
- Xedapen Iragankor Bakarra.
- Xedapen indargabetzaile bakarra.
- Azken Xedapenetan Lehena. (Izenbururik gabe)
- Azken Xedapenetan Bigarrena. (Izenbururik gabe)
- Azken xedapenetan hirugarrena. (Izenbururik gabe)

Kontrako korrontea ikusten da hurrengo Lege eta aurreproiektuetan:

1. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa

- Xedapen gehigarriak
 - Lehenengoa.- Higiezin-zerbitzuak eskaintzen parte hartzen duten agenteak
 - Bigarrena.- Etxebizitzako gastuetako prestazio osagarria
 - Hirugarrena.- Irabazi-asmorik gabeko elkarrekin egoitza-multzoak sustatzea edo eskuratzea, erabilera-lagapen moduan.
- Xedapen iragankorrak
 - Lehenengoa.- Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak.
 - Bigarrena.- Babes publikoko etxebizitzak arautzen dituzten erregelamenduak.
- Xedapen indargabetzaileak
 - Lehenengoa.- Bigarrena.
- Azken xedapenak
 - Lehenengoa.- Erregelamendu bidez garatzeko baimena.
 - Bigarrena.- Zenbatekoak eguneratzea.

¹⁹ Ikus ez dagoela izenbururik

²⁰ Hauetan ere ez da izenbururik ageri

2. 1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzkoa

- XEDAPEN INDARGABETZAILEA
- XEDAPEN GEHIGARRIAK
 - Lehenengoa.- Hezkuntza arloko administrazioari baimena ematen zaio Laudioko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, Laudioko Lanbide Heziketako Udal Egoitza zentro publikoen sarean txertatzekoa.
 - Bigarrena.- Autonomia araubidea
 - Hirugarrena.- Urruneko Heziketako Euskal Institutuan txertatzea
- XEDAPEN IRAGANKORRA
- AZKEN XEDAPENAK
 - Lehenengoa.- Lanean edo prestakuntza-bide ez-formaletan lortutako laneko gaitasunak egiaztatzeko ordaindu beharreko tasa.
 - Bigarrena.- Legea garatzeko eta betetzeko gaikuntza.
 - Hirugarrena.- Indarrean jartzea.

3. 18/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekonomialarien eta Merkataritza Tituludunen Elkargoak Bateratzekoa

- XEDAPEN IRAGANKORRAK
 - Lehenengoa.- Bateratze-prozesua.
 - Bigarrena.- Bateratze-proiektua
 - Hirugarrena.- Bateratze-sistema nagusia
- AZKEN XEDAPENA.- Indarrean jartzea.

4. 17/2012 Legea, ekainaren 28koa, Kazetarien Euskal Elkargoa sortzekoa

- XEDAPEN IRAGANKORRAK
 - Lehenengoa. (Izenbururik gabe)
 - Bigarrena (Izenbururik gabe)
 - Hirugarrena. (Izenbururik gabe)
- AZKEN XEDAPENA

5. 16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzekoa

- AZKEN XEDAPENAK

- Lehenengoa (Izenbururik gabe)
- Bigarrena (Izenbururik gabe)

6. 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa

- XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Lehenengoa.- Gida klinikoa
- Bigarrena.- Erreferentziako unitatea

- AZKEN XEDAPENAK

- Lehenengoa.– Erregelamendu bidezko garapena.
- Bigarrena.– Indarrean jartzea.

7. 13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa

- XEDAPEN GEHIGARRIA

- XEDAPEN IRAGANKORRAK

- Lehenengoa.- Agentziako organoen osaera.
- Bigarrena. (Izenbururik gabe)

8. Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen Aurreproiektua

- Xedapen gehigarriak

- Lehenengoa.- Tokiko araugintza-ahala.
- Bigarrena.- Zehapen-prozedurak
- Hirugarrena.- Federazioak eta elkarteak.

- Xedapen iragankorrak

- Lehenengoa.- Udalerrien eskumen propioen esparru materialetan eskumenak baliatzea.
- Bigarrena.- Jarduerak, zerbitzuak eta prestazioen jarraitutasuna

- Xedapen indargabetzailea

- Azken xedapenak

- Lehenengoa.- «Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremani» buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeari egindako aldaketak.
- Bigarrena.- Sistema berrian funtzionamenduan jartzea.

Txostenean aztergai den aurreproiektua adierazitako bi korranteetako bigarrenean sartuko litzateke. Haatik, legegintzako xedapenei dagokion azken atala modu anitzetan idatzita dagoela ikusirik (eta kontuan hartuta legegintzako ekimena, gehienbat, Gobernu honek gauzatzen duela), kasu guztietan irizpide beraren arabera jardutea komeniko litzatekeela uste dugu -modu batera edo bestera-, modu horretan, legearen hartzaileak ez dezan formaren aldetiko ezberdintasunik topatu, izan ere, bestela legeak idazketaren arabera ezberdinak direla pentsa dezake edo, are okerragoa dena, testua idatzi duenak nahieran jarduten duela idazterakoan ageriko justifikaziorik gabe.

6.- ONDORIOAK

Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legearen aurreproiektu honi buruzko txosten hau ematen dut eta zuzenbide-oinarri hobeak dituen beste edozeinen mendean jartzen dut.

Vitoria-Gasteiz,

Iñigo Lopez de Uralde Zuazo
Aholkularitza Juridikoaren arduraduna
Aholkularitza Juridikoaren arduraduna

ONTZAT EMANA
Juan María Zubeldia Arrieta
Zerbitzu Zuzendaria
Zerbitzu Zuzendaria